

BILBOROCKLAB

GIKARITZE-LABURPENA

2016 MARTXOA 8



SARRERAKO ASMOAK
JASOTAKO EKARPENAK

ESPAZIO FISIKOA

TOPAKETAKO ESPAZIO FISIKOA

SORRERA

KOMUNITATEA

LOTURAK

PROGRAMAZIOA

ANIZTASUNA

DISKRIMINAZIO POSITIBOA

JOERA

PARTE-HARTZEA

LIDERGOA

KRONOGRAMA

Bilborocklab prozesuan parte-hartzea eta komunikazioa egon da. Informazio asko egon da, eta askotariko ikuspegiak biltzen ditu. Prozesuak eta edukiek jada arrastoa utzi dute Gazteria Sailaren eta horietan parte hartu dutenen erabaki eta proposamenetan.

Ondorioak txosten bakar batean laburtzeak sinplifikazio subjektibo handia eskatzen du.

PROZESUAN JASOTAKO EKARPENAK



KOMUNIKAZIO DIGITALA

Bilborock sona handiko tokia da Bilbon, baina jendeak ez daki askorik eskaintzen dituen instalazio, zerbitzu, baliabide zein aukerez. Komunikazio-estrategia beste planteamendu baten beharrea da, digitalerantz zabaldu beharra du. Bilborock komunikazio eta marketin digitaleko plan baten premian da. Eta bere helburua ez da egongo soilik ikomunikatzeari, solas egiteari eta, batik bat, entzuteari ere. Horretarako, 'topagune' digital bat eraiki behar da, bere egoitza elektronikoarekin, eta informazio eta zerbitzuen eskuratzea hobetzeari lotuta, baita kanalak, edukiak eta formatuak egokitu beharrea dira xedetzat den jendearentzat.

Estrategia Bilborock LAB gisako sareetan. Webgunea eta egoitza elektronikoa.

Entzutea / balioa

TOPAKETAKO ESPAZIO FISIKOA

Espazio fisikoak kanpoaldea aldatzea eskatzen du, hesiak apurtzea, barnealdea jendarteteratzea eta estrategia batzuk eratzea bertara iristeaz gain, sartu eta bertako espazioan egoten laguntzeko, topagune ireki eta ez-formal batean bihurtu dadin, iraganbide huts izan ez dadin.

Bilborock, ireki ieazkidazu ateak!

Aretoaren eta kalearen arteko muga desegin. Bilborock jendearengana, jendearekin Kafetegia sarreran. Hambronetari buelta eman. Lehen solairuan hartuko dituen pertsonak

SORMENA

Bilborock, kulturaren eta aisialdiaren kontsumorako toki bat izateaz gain, sormenerako toki baten ezaugarriak bildu ditzakeen espazioa izan daiteke, non diziplina anitzeko gazteak elkar topo egin eta proiektuak gauzatu ditzaketen elkarren artean. Toki habitagarri bat, eta habitatua, sormena nola berregitea, moldakortasuna zein funtzionaltasuna batuko dituen.

Ekimen-mapak oso kultura-jarduera aberatsa aurreikusten du, 20/30 urte bitarteko gazteek proposatutakoak. Sorkuntza-espazio baterako sarbidea. Apustua, Erosketa Publiko arduratsu eta berritzailea, diskriminazio positiboa.

KOMUNITATEA

Bilborock-ek ekimenen/pertsonen komunitate bat behar du, analogikoaren eta digitalaren artekoa, aretoaren nortasuna sendotuko duena. Etorkizunean gertatuko diren aldaketak gidatuko eta kontrastatuko dituen komunitatea, gailentzen doanari loturik edukiko duena; eta, aldi berean, aitormena jasoko duena, zainduko dena eta lagunduko dena.

Etorkizuneko Bilborock-ari buruzko ikuspegiak dituen talde eragilea eta pertsonak hilaren 13an.

LOTURAK

Ekosistema eta komunitate bat eraikitzeko loturak egingo dituen toki izatea eskatzen dio gazte jendeak Bilborock-i. Komunitate bat non elkar ezagutu, baliabideak bateratu eta proposamen berriak taxutuko dituzten ekimen, pertsona, sustatzaile, eragile nahi kultur espazioak egongo diren. Bilboko gazteriaren jarduerak elkarlotzeko, integratzeko eta bultzatzeko eginkizun horrek xede garbia du, hots, elkartzetik aukerak eta azterbideak sortzea.

Informazioa izatea eta partekatzea. Open data. Topaketarako webgunea. Ezagutzera emateko laguntza. Elkar ezagutzeko topaketak. Harremanak sortarazteko jarduerak.

PROGRAMAZIOA

Bilborock-en programazioa izan daiteke egituratuagoa eta zuzenduagoa, eta ardatza askotariko kontzertu erakargarriak izango dira, ospe handiko taldeekin. Oreka lortu daiteke deialdi arrakastatsuen eta musikari lotutako beste jarduera ez hain ezagun batzuen artean, lehenengoekin (deialdi arrakastatsuak) bigarrenak (beste mota bateko jarduerak) nabarmendu araziz, eta indarra egingo da bertako taldeak sustatzeko eta publikoa berritzeko.

Nortasuna duen programazioa, musika-sustatzaile eta -taldeei loturikoa. Espazio erakargarri bat sortzen laguntzen du, eta sormena bultzatzen. Bilbo Hiria eta Tracking esperientziak.

ANIZTASUNA

Bilborock-eko jarduera eta erabilerak hiriko gazteriaren aniztasunarentzat ere tokia egin dezake, eta, hala, bere lekua izan dezakete mainstream edo gazte gehienek ez dituzten beste batzuen apustu kulturalak, auzoko kultura-aniztasunak eta genero ikuspegi feministak.

Auzoa aukera gisa. Musika da ardatz nagusia, topagunea eta mestizaia bultzatzeko aitzakia gisa.

DISKRIMINAZIO POSITIBOA

Aretoaren alokairu-prezioak altuak iruditzen zaizkio gazte jendeari (horiek dute diru-baliabide gutxien), eta beraz, berrikusi beharrean daude diskriminazio positiboko politikak aktibatuta; politika horiek irizpide garbi eta gardenak izango dituzte era batera edo bestera gazteenak edo jende gutxien biltzen dituzten diziplinak erakartzeko eragile izango diren kolektiboentzat.

Diskriminazio positiboko irizpideak. Prezioetan malgutasuna. Barrako irabazien banaketa. Sendotutako jarduerak eta ekimen sortu berriak tartekatu. Interesekoak eta indartzekoak diren ekimenei entzun.

Kontrastea

JOERA

Internetek biderkatu egin du gazteengan sormenerako gaitasuna; gazteek berekin dakarte ekoizpen digitalerako modu berrien hazia, eta Bilborock-ek errealitate hori bere egin dezake sortzen dituen proposamenetan eboluzionatze aldera.

Adi egotea. Espazioa sortzea. Laguntzea. Azken nobedadearen atzetik indarrak ez galtzea.

PARTE-HARTZEA

Gazteek entzunak izan nahi dute, parte hartu nahi dute espazioen eraldatzean, zaintzean eta bilakaeran. Praktika ona dela irizten zaio #BilborockLab esperientziari, pertsona multzo baten arteko eztabaida, hausnarketa, ebaluazioa eta kontrastea bultzatzeko, eta eutsi egin behar zaio horri, eta baita elkarren artean kudeatuko diren mekanismoak ezartzeko hala nola Bilborock-eko kide direnak eta bertan egoten direnak gehiago inplikatzeko borondateari ere.


Taldeko adimena, ez dago dena jakin beharrik. Lankidetzaharremanak proposatzen eta zaintzen ditugu. BilborockLab esperientzia ona izan da, eta ondo dabil.

LIDERGOA

Lan-proposamen hauek guztiauek esparru estrategiko bat eskatzen dute epe ertain eta luze batera, legegintzaldiek agintzen duten erritmoaz harago. Horretarako, ezinbestekoa da lan-talde batean eratutako pertsonekin kontatzea, egunez eguneko zereginak zehaztuta izateko. Lidergo argia erakutsiko duena, eta, batetik, Bilborock-i lotutako pertsona eta eragileak biltzeko gai izango dena: Gazteria Saila, erakunde kudeatzailea (eta Bilborock-i lotutako pertsonak, harekin subrogazio egoeran daudenak), sustatzaileak, sormenezko ekimendun gazteak, eta abar; bestetik, berriz, gogoetarako, planifikatzeko, abian jartzeko eta ebaluazio ireki eta egiazkoentzako guneak sor ditzakeena, non pertsonak, egiten dituzten ekarpenekin, beharrezkoak eta garrantzitsuak sentituko diren.

Garrantzitsua da arduradun guztiak zehazturik izatea. Konfiantza eraikitzeko guneak sortu. Erabakiak partekatu, eta egitasmo argi eta partekatua sortu. Alde guztiak sendotuko dituen prozesuak.

KRONOGRAMA





Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

**GAZTERIA ETA KIROL SAILA
AREA DE JUVENTUD Y DEPORTE**

www.bilbao.eus